

Inicio > Ocio y cultura > Cultura

'Venusen delta', euskaratzen den Anaïs Ninen lehenengo lana

GARAZI ARRULA ETA FERNANDO REY ITZULTZAILEAK JOAN ZEN ASTEAN AURKEZTU ZUTEN TXALAPARTAREN LIBURUA

M. MINDEGIA - Jueves, 27 de Junio de 2013 - Actualizado a las 06:39h

☆☆☆☆☆ ivota! | [icomenta!](#)



2

Recomendar

1

IRUÑEA. Garazi Arrularen itzulpenarekin, lehenengo aldiz Anaïs Ninen (Frantzia, 1903-1977) lanetako bat euskaraz irakurtzeko aukera eskaini berri du Txalaparta argitaletxeak. 15 kontakizun erotiko biltzen dituen *Venusen delta* liburua, Literotura bildumaren baitan bildu dena, joan zen astean aurkeztu zen La Hormiga Atómica liburudenda iruindarrean.

Itzultzailearen lehenengo lan luzea da *Venusen delta*. Arrula literatura erotikoaren terminologian murgildu behar izan da, euskaraz arlo nahiko berritzailea den heinean. "Arlo horretan apenas dagoen batasunik", aipatu zuen aurkezpenean. Euskaratze lanerako, alta, Fernando Rey itzultzaile nafarraren gainbegirada ondoan izan du.

Txalapartak lehenengoz gureganatu duen Ninen liburua iraultzailea izan zen oso bere garaian. Egileak, diruak behartuta, aberats baten enkarguz ipuin erotikoak idazten hasi zen 1940ko hamarkadan. Orrialde bakoitzeko dolar bat jasotzen zuen ordainetan eta, hasmentan argitaratzeko asmorik izan ez bazuen ere, 1970eko hamarkadan iritziz aldatu eta bi bilduma osatu zituen egindako guztiarekin.

Zazpi aletan bildutako egunerokoengatik ezagunagoa bada ere, Ninek arlo erotikoan egindako ekarpenak iraultza bat suposatu zuen, lehenengoz emakumearen ikuspegia lantzen baitzuen.

Argitaletxearen erranetan, "Ninek idatzitako istorioei erotismo hipnotiko bat darie eta, haren pertsonaiek nortasun propio eta sendoa daukate. Horien artean leku berezia dauka Euskalduna eta Bijou ipuineko protagonistak; nazioarteko literaturan aurrenekoz euskaldunok desira objektu gisa aurkezten gaituelako".

JATORRIZKO LITEROTURA Txalaparta argitaletxearen Literotura bildumaren azken alea da *Venusen delta*. Alta, aitzitik ere argitaratu izan dira jatorriz euskaraz idatzitako literatura erotikoaren arloko lanak ere. Horren adibide da *Esku hori!* ipuin bilduma.

Basauriko Euskarabila elkarteak 1996tik antolatzen duen ipuin erotikoen lehiaketaren ondorioz sortutako bilduma honetan esku ugariaren artean idatzitako lanak biltzen dira, argitaletxearen hitzetan, "plazera bilatzeko eskubidea dugulako eta bizitzak sarri ukatzen diguna literaturan bilatu ohi dugulako.

Hala, *Esku hori!*-n Itziar Abad, Alaitz Andreu, Estitxu Arozena, Karmele Arrieta, Eneritz Dueso, Iratxe Esnaola, Imanol Epelde, Alvaro Iribarren, Miren Juaristi, Dani Martirena, Aitor Monge, Txema Perez, Alvaro Rabelli, Danele Sarriugarte eta Josu Unzuetaen ipuinak plazaratzen dira.

Vista:

Más texto

Más visual

